

AZTARNAK

Bizitzaren jatorriari buruz bidaia pertsonal eta kolektiboa

IRENE ELORZA

Zinemira saileko klausurako emaldian ikusi ahal izango da, gaur gauean, Maru Soloresek (Donostia, 1968) zuzendari gisa egin duen azken filma: *Aztarnak*. Egileak bigarrenez parte hartuko du Zinemiran, bere lehen film luzea, *Camera obscura*, bertan aurkeztu baitzuen orain dela hamar urte. Dokumentala Donostia Zinemaldiaren baitan ikusi ezin dutenek izango dute aurrerantzean aukerarik, izan ere, urriaren 15ean egingo baita estreinaldi komertziala.

Bizitzaren hasierara bidaia planteatu du Soloresek, pertsonala eta aldi berean korala den dokumental honetan. Galdera sakon ugari planteatzen ditu zuzendariak: Haurtzaroan ereiten al da zoriontasunaren hazia? Gogoratzeko ez ditugun lehen urte horiek aztarna sakonak uzten omen dizkigute. Baina, aztarna horiek betiko al dira? Edo, aldiz, aldatzen joaten dira? "Ondo dago gaia plazaratzea, hausnartzeko; erantzunak denon artean aurkitu behar dira", dio zuzendariak.

Galdera egokiak behin eta berriz egitearen garrantzia erakusten du fil-



Maru Solores zuzendaria eta Nere Falagan argazki-zuzendaria.

mak. Horietatik abiatuta, amatasunaz, aitatasunaz, zaintzaz, haurtzaroaz eta hauek guztiek gizartean duten lekuez hausnartzea proposatzen du Maru Soloresen lanak. "Nire alaba-

ren lehenengo urteetan, Donostiako Hazi Hezi guneko Haziera Taldeetan ibili nintzenean, asko hausnartu eta irakurri genuen eta adituen hitzaldiak entzun genituen", dio Maru Soloresek

proiektuaren jatorria azaltzean, "eta pentsatu nuen ederra zatekeela informazio horrekin zerbait egitea modu zinematografikoan eta gizarteari transmititzea. Gaur egun gizartean

kontzientzia eta sentsibilitate gehiago dago, baina duela gutxira arte, etzegeen". Erronkari aurre egin eta gaur egun den amarengandik izan zen umearengana doan bidaiari ekin zion filmaren bitartez, beste guraso, haur eta adituak bidaide zituelarik.

Errodaje luzea izan da *Aztarnak*, finantziario kontuak zirela-medio, baina behin *crowdfunding* kanpaina gauzatu zenean, jarraipen gehiagorekin filmatu eta film luzea osatzea lortu zuen lantaldeak. Talde txikia izateak beste modu batera lan egitea errazten eta ahalbidetzen duela dio Soloresek. Proiektuko argazki-zuzendariak, Nere Falaganek, adierazi duenez, "lantalde giro polita egon zen, enpatia handia zegoelako gure artean; dokumentalean parte hartzea proposatu

"Ondo dago gaia plazaratzea baina erantzunak denon artean aurkitu behar ditugu"

zidan eta niretzat oparia izan da, asko eskertzen diot. Gai interesgarria iruditzen zitzaidan lehendik ere eta oso erraza izan da Marurekin lan egitea, oso eskuzabala delako".

ZINEMALDIA REKIN

PATROCINADOR DEL 69 FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
69. DONOSTIA ZINEMALDIAREN BABESLEA